



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko otsailaren 24an

13 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako Kontseiluaren Foru Lege proiektua. Ponentziaren txostena (2. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona. Aurkeztutako emendakinak (9. or.).

—Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa. Aurkeztutako emendakinak (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Kontseiluaren Foru Lege proiektua

PONENTZIAREN TXOSTENA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeko Lantaldeak Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamenari buruz eta Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege Proiektuari buruz prestatutako txostena, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Aipatu Foru Lege proposamena eta Foru Lege proiektua 1998ko martxoaren 17ko 19 zk.ko eta 1998ko maiatzaren 6ko 31 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitaratu ziren, hurrenez hurren.

Iruñean, 1999ko otsailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

TXOSTENA

Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamenaren eta Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektuaren gaineko txostena egiteko ardura duen ponentziak hurrengo foru parlamentarioak ditu kide:

UPN	Titularra: Joaquín Salcedo Izu Ordezkoa: Gaspar Castellano de Gastón
SPN	Titularra: Carlos Cristóbal García Ordezkoa: Inmaculada Pinilla Baigorri
NDE	Titularra: Juan Cruz Alli Aranguren Ordezkoa: Luis Gerardo López Eslava
Ezker-A.	Titularra: Pedro Romeo Lizarraga Ordezkoa: Shanti Kiroga Astiz
IU-EB	Titularra: Isabel Arboniés Bermejo Ordezkoa: José Miguel Nuin Moreno
Askotarikoa	Titularra: Fermín Ciáurriz Gómez Ordezkoa: Begoña Errazti Esnal

Biltzarreko Legelari Esther Díaz Rivas andrea-ren laguntza ere izan du. Aipatu foru lege proiektua eta foru lege proposamena eta horiei aurkeztu zaizkien emendakinak aztertu ondoren, Nafarroako Parlamentuko 55.2 eta 131. artikuluek xedatu

dutena betez, hurrengo txostena helarazten diote Batzordeari:

Ponentzia 1998ko maiatzaren 9an eratu zen, eta hurrengo bilerak izan ditu: 1998ko maiatzaren 29an, urriaren 6an eta 8an, eta 1999ko otsailaren 9an eta 15ean.

Foru lege proiektuak eta foru lege proposamenak erabili dituzten gai nagusiak eztabaidatu dira, eta bi testuei aurkeztu zaizkien emendakinak ere aztertu dira.

Testu berria egiteko erabakia hartu du Ponentziak, aurreko testu biak eta Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek aurkeztu emendakinak oinarritzat hartuta; izan ere, bi testu izateak zaildu egiten baitzuen lana. Txosten honen eranskinean jarri dugu testu berri hori, Batzordeko eztabaidarako oinarri izan dadin.

Beste alde batetik, Ponentziaren lanen zailtasunaren berri eman zaio Biltzarreko Mahaiari, zeinak emendakinak berrantolatzeke epea ireki baitu, aurtengo otsailaren 24an bukatuko dena, Parlamentuko Taldeek proiektuari eta proposamenari aurkeztu emendakinak testu berriari egokitu diezazkieten. Testu berri hori, berriz diogu, eranskin gisa jarri zaio txostenari.

Ponentziaren txostena eta haren eranskina onetsi egin dira; izan ere, "Unión del Pueblo Navarro", "Nafarroako Demokraten Elkargunea", "Ezker Abertzalea" eta "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeek eta "Askotariko" Parlamentuko Taldeko Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentario jaunak aldeko botoa eman dute, eta "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldea abstenitu egin da. Beraz, boto ponderatua aplikatuz gero, 38 boto alde, batere ez kontra eta 11 abstentzio atera dira.

Iruñean, 1999ko otsailaren 15ean

Joaquín Salcedo Izu	Carlos Cristóbal García
Juan Cruz Alli Aranguren	Pedro Romeo Lizarraga
Isabel Arboniés Bermejo	Fermín Ciáurriz Gómez

Nafarroako Kontseiluaren Foru Lege proiektua

ZIOEN ADIERAZPENA

Gobernamenduaren jardunak, historian zehar, erakunde aholku-emaileen laguntza izan du Nafarroan. Horien artean aipagarriena Nafarroako Errege Kontseilu Gorena izan da, izan duen iraupena eta garrantziagatik. Gobernu lanetan aholkuak ematea zegokion eta errege botereak "sobrecarta" izeneko eskubidearen bidez emandako xedapenen legezkotasuna eta forutasuna begiratzea.

Foru Lege honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Kontseilua eratzen du, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.a) eta e) artikuluan bildutako foru araubidearen indarrez bere foru erakundeak eta Foru Komunitateko Administrazioa antolatzeke duen eskumen osoaz baliatuz. Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorenak izanen da.

Bai Nafarroako autogobernuaren sendotzeak bai jendearen interes orokorra eta legezkotasun positiboa hurbiltasun handiagoz ezinbestez babestu beharrak, eta, horiez gain, legegintzari eta administrazioaren jarduerari hobekuntza juridiko eta tekniko handiagoa emateko komenentziak, egoki egiten dute foru Nafarroako foru erakundearen eta administrazio publikoaren organo aholku-emaile gorenak Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan sortzea.

Indarra duen arauteriak eta konstituzioaren jurisprudentziak, zeinen indarrez autonomi erkidegoek eta, hortaz, Nafarroako Foru Komunitatearen organo aholku-emaile gorenak eratzeko eskubidea baitute, Nafarroak arlo horretan dituen eskubide historikoak babesten dituzte.

Nafarroako Kontseiluaren eraketa, beraz, justifikatuta dago, erabat; izan ere, foru erakundearen eskema hobetuko du, Estatuko Kontseiluaren partehartzea beharrezkoa izanen ez delako, eta Foru Komunitatearen autogobernu maila goratuko.

Nafarroako Kontseilua organo aholku-emaile gisa eratuko da, organo erabakitzaileetatik aparte. Autonomia organiko eta funtzionala izanen du eta eskumen esparru berriazkoa emanen zaio. Kideen araubideak beren kualifikazio tekniko zorrotza bermatuko du eta, halaber, horien neutraltasuna eta inpartzialtasuna.

LEHEN KAPITULUA Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Izaera.

1. Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorenak da Nafarroako Kontseilua.

2. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetzen dela begiratu du.

3. Nafarroako Kontseiluak Iruñean du bere egoitza.

2. artikulua. Autonomia.

Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izanen du, bere objetibotasuna eta independentzia bermatuko badira.

3. artikulua. Irizpenen izaera.

1. Kontseiluari aholkua eskatzea nahitaezkoa izanen da Lege honetan edo beste batzuetan ezartzen diren kasuetan, eta gainerakoetan aukekoa izanen da.

2. Irizpenak ez dira lotesleak izanen, lege bidez horrelakoak izatea ezartzen den kasuetan izan ezik.

II. KAPITULUA Osaketa

4. artikulua. Kideak.

1. Nafarroako Gobernuko Lehendakariak izendatutako zazpi kidek osatuko dute Kontseilua; nafartasun politikoa eta gaitasun eta ospe aitortua duten legegarien artean hautatuko dira: lau Nafarroako Parlamentuak proposatuko ditu, bere kideen gehiengo osoarekin hautatu ondoren; gainerako hirurak Nafarroako Gobernuak proposatuko ditu.

2. Nafarroako Kontseiluko kideak sei urteko eperako izendatuko dira eta berriro hautatuak izaten ahalko dira.

3. Kontseilukideak, beren karguan dihardutean, independenteak izanen dira, eta ez dira hortik kentzen ahalko.

5. artikulua. Karguaz jabetzea.

Izendatu eta hurrengo hogeita hamar egun naturalen barruan jabetuko dira karguaz kontseilukideak. Nafarroako Foru Araubidea beti errespetatzea, Konstituzioari eta legeei men egitea eta

beraien karguari dagozkien betebeharrak zintzo betetzea zin egin edo hitz emanen dute.

6. artikulua. Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra.

1. Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkuran eta Batzorde Iraunkorrean jardunen du.

2. Nafarroako Kontseiluko kide guztiek osatuko dute Osoko Bilkura.

3. Kontseiluburuak eta Osoko Bilkurak izendaturiko bi kidek -Kontseiluko idazkaria izanen da horietako bat- osatuko dute Batzorde Iraunkorra.

7. artikulua. Kontseiluburuak.

1. Kontseiluburuak kontseilukideen artean hautatuko da, gehiengo osoaz eta isilpeko bozketaz, eta Nafarroako Gobernuak Lehendakariari proposatuko zaio haren izendapena.

2. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketak bat eginen da. Horretan, boto gehien eskuratu duena aukeratuko dute. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketak bat eginen da, eta berriro berdintzatzen bada, kontseilukiderik zaharrena izendatuko dute.

3. Kontseiluburuaren agintaldiak sei urte iraunen du. Berriz ere hautatu ahal izanen dute, agintaldia bukatu ondoren.

4. Kontseiluburu kargua bete gabe badago, edo kontseiluburu kanpoan edo eri dagoenean, haren ordez idazkariak besteko kiderik antzinakoenak arituko da -edo, halakorik ezean, zaharrena-, beste bat aukeratu edo ordezkapenaren zergatia bukatu arte.

8. artikulua. Kontseiluburuaren eginkizunak.

Kontseilukide izateagatik dagozkion eginkizunak gain, hurrengoak ditu bere kontseiluburuak:

- a) Nafarroako Kontseiluaren ordezkariak.
- b) Kontseiluko bileretarako deia egitea, eta bileretako buru eta zuzendari izatea.
- c) Gaiak kontseilukideen artean banatzea, ponentzia egin dezaten.
- d) Kontseilutik kanpoko adituak izendatu eta horiei txostenak agintzea, beharrezkotzat jotzen denean.
- e) Kontseiluaren gastu-espeditenteak baimentzea, Idazkariak izapidatu aurretik.
- f) Erregelamendu organikoak finkatzen dituen gainerako eginkizunak.

9. artikulua. Idazkaria.

1. Kontseiluko Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren idazkaria kontseilukideen artean hautatuko da, kontseiluburuak hautatzeko prozedura bera erabilita, salbuespen batekin: berdinketa gertatuz gero, gazteena hautatuko da.

2. Idazkari kargua bete gabe badago, edo idazkaria kanpoan edo eri dagoenean, haren ordez kiderik gazteena arituko da, beste bat aukeratu edo ordezkapenaren zergatia bukatu arte.

10. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

Kontseilukide izateagatik dagozkion eginkizunak gain, hurrengoak ditu bere idazkariak:

- a) Kontseiluko langileen nagusia izatea.
- b) Kontseiluko bilkuretarako dokumentazioa aztertu eta prestatzea.
- c) Kontseiluko bilkuren akta egitea.
- d) Kontseiluaren egiaztatze- eta jakinarazpen-organoa izatea.
- e) Erregelamendu organikoak finkatzen dituen gainerako eginkizunak.

11. artikulua. Kargu uztea.

1. Kontseilukideek honako egoera hauetan utziko dute kargua:

- a) Uko egitea.
- b) Kidea hiltzea.
- c) Kargualdia amaitzea.
- d) Gertatzezko bateraezintasuna.
- e) Eginkizunetan akats larria egitea.
- f) Doluzko delituagatik zigorra izatea, epai irmoaren ondoriozkoa.
- g) Ezintasuna, epaileen erabaki irmoaren bidez deklaratu.
- h) Nafartasun politikoa galtzea.

2. Kargu uztea Gobernuak Lehendakariaren Foru Dekretuaren bidez aginduko da. Aurreko zenbakiko d) eta e) letretan aurreikusitako kasuetan, hauexek beharko dira: espeditentea, interesatuari entzunaldia eskainiz, Kontseiluaren txostena, eta kontseiluburuaren proposamena.

a), c) eta h) letretako kasuetan, kontseilukideek beren eginkizunetan jardunen dute, ordezkaria izendatu eta karguaz jabetu arte.

3. Kargualdia amaitu aurretik sortzen diren postu hutsak kasuan kasuko kidearen kargualdia amaitu arte beteko dira, 4. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

12. artikulua. Funtziogabetzea.

Nafarroako Gobernuak, Kontseiluaren arioz eta haren iritzia entzun ondoren, kontseilukideak funtzio gabetu ahalko ditu, 11.1. artikuluko d) et e) letretan kargua uzteko egoerei buruzko ebazpena emateko behar den ezinbesteko denborarako, eta, halaber, prozedura penala gertatzen den kasuetan.

13. artikulua. Betebeharrak.

Nafarroako Kontseiluko kideak beharturik daude jorratu beharreko gaiak erabakitzeko bilkurretara normaltasunez joatera, eta deitzen zaien gainerakoetara ere, eskatzen zaizkien azterketa, ponentzia eta lanak -beren karguari dagozkionak- egitera eta jarduketa eta erabakiak isilpean gordezera.

14. artikulua. Bateriaezintasunak.

Indarra duten beste arauak aplikatuz dagozkien bateraezintasunez gain, Nafarroako Kontseiluko kide izatea kargu hauekin bateraezina izan da.

a) Nafarroako Gobernuko Lehendakaria edo Kontseilaria.

b) Europako Batasuneko, Estatuko edo autonomi erkidego zein toki entitate bateko erakunde-etako kargu hautetsia izatea.

c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresarioen elkarte bateko zuzendaritza taldekoa izatea.

d) Fiskal edo epaileen karrerako jarduneko kidea.

e) Obra edo zerbitzu publikoen emakidadun edo kontratista diren enpresetako zuzendaritzako edozein kargua.

15. artikulua. Ordainsariak.

1. Kontseilukideek Kontseiluko lan bilkurretara joategatik erregelamenduz ezartzen diren mantenu-sari eta ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute.

2. Gainera, kontseilukide guztiek txosten eta irizpenen egile izateagatik erregelamenduz ezartzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute.

3. Aurreko bi zenbakietan ezartzen diren ordainsariak lanetan parte hartzen duten adituek ere jasoko dituzte, 25. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

III. KAPITULUA
Eskumenak

16. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkuraren irizpena.

1. Nahitaez, afera hauetan eskatu beharko da Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkuraren aholkua:

a) Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko.

b) Foru legeen aurreproiektuak edo administrazio-xedapenen proiektuak, baldin eta Nafarroako Kontseiluaren antolamendua, eskumena edo funtzionamendua ukitzen badute.

c) Foru dekretu legegileetarako proiektuak.

d) Konstituziokontzotasun errekurtsuetan eta Konstituzio Auzitegiaren aurreko eskumen-gatazketan.

e) Beraien aplikazioa Hitzarmen Ekonomikotik erakarri duten erregelamenduen edo administrazio-xedapenen proiektuak.

f) Estatuarekiko, autonomia-erkidegoekiko eta administrazio publikoekiko hitzarmen eta itunak, baldin eta Foru Komunitatea horien parte bada, eta baita hitzarmen edo itunak ulertzean sor litezkeen zalantza eta ezadostasunak.

g) Legeak hala aginduta, Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurak nahitaez irizpena eman behar duen beste edozein afera; halaber, afera Batzorde Iraunkorraren eskumenpekoa izanda ere, gaiaren garrantziagatik Osoko Bilkurak bere gain hartzen duenean, kontseiluburuak edo Batzorde Iraunkorrek hala proposatuta.

Era berean, Osoko Bilkura arduratuko da Batzorde Iraunkorraren eskumenpeko gaiez, berdinketa gertatuz gero.

2. Hurrengo aferetan eskatu ahalko zaio aholkua Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurari:

a) Foru legeen aurreproiektuak, Nafarroako Gobernuak hala eskatzen duenean bere lehendakariaren bidez.

b) Foru legeen proiektu eta proposamenak, Nafarroako Parlamentuak hala galdatzen duenean bere lehendakariaren bidez, Mahaiaren, bi Talde Parlamentarioen edo Foru Parlamentarioen bosten baten eskariz.

17. artikulua. Nafarroako Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren irizpena.

1. Nahitaez, afera hauetan eskatu beharko da Nafarroako Kontseiluaren Batzorde Iraunkorren aholkua:

a) Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, baita horien aldaketak ere.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren esku-bide ekonomikoei buruzko elkar-aditzeak -judiziozkoak zein judiziotik kanpokoak- eta aipatu eskubideei buruz sor daitezkeen gatazkak arbitrajepean jartzea, beti ere eztabaidagaia berrogeita hamar milioi pezeta baino gehiago bada. Edonola ere, kontsulta ez da nahitaezkoa izanzen eskubide horiek ukitzen dituzten itun edo hitzarmenetan, prozedura konkurtsalen ondorioz sortu direnean, hain zuzen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 15. artikulua 2. zenbakiko bigarren lerroaldean aipatzen direnak.

c) Berrikuspen-errekurtso administratiboak.

d) Foru Komunitateko Administrazioak izapidaturiko espedienteak, legeak derrigorrez eskatzen badu organismo aholku-emaile baten irizpena, eta espedienteak hurrengo gaiak ukitzen baditu, besteak beste:

– Kalte-galerak ordaintzeko eskariak, hogeit mila pezetatik goitikoak badira.

– Administrazioak bere kabuz berraztertzea administrazio-egintzak.

– Hirigintza-planeamenduko tresnak aldatzea, aldaketaren xedea berdeguneen edo espazio librean bestelako zonifikazioa edo erabilera bada.

– Udal dermioak aldatzeko espedienteak.

– Administrazio-kontratu edo -hitzarmenen interpretazio, deuseztasuna edo iraugipena, kontratista aurka agertzen denean;

– Kontzesio eta kontratuen aldaketak, horien zenbatekoa, dela bakarka dela osorik hartuta, kontratuaren esleipen prezioaren %20tik gorakoa denean eta kontratuaren esleipen prezioa 1.000.000.000 pezetakoa edo handiagoa denean.

e) Nafarroako toki entitateek izapidaturiko espedienteak, ezar daitezkeen arauak Kontseiluaren nahitaezko irizpena eskatzen dutenean.

f) Legearen arabera, Nafarroako Kontseiluaren nahitaezko irizpena behar duten gainerako gaiak, horien gaineko eskumena Osoko Bilkurari ez doakionean.

2. Berdinketarik gertatuz gero, Osoko Bilkuraren eskumenean utziko du afera Batzorde Iraunkorrek. Era berean, Batzorde Iraunkorrek Osoko

Bilkurari eska diezaioke txostenak emateko ardurarengana dezala, Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurak irizpena eman behar dien aferak badira, duten garrantzia dela-eta.

18. artikulua. Beste irizpen batzuk.

1. Hurrengo aferetan ere emanen du irizpena Nafarroako Kontseiluak: Nafarroako Gobernuak bere Lehendakariaren bidez helarazten dizkionetan; edo Nafarroako Parlamentuak bere Lehendakariaren bidez helarazten dizkionetan, Mahaiaren, bi Talde Parlamentarioren edo Foru Parlamentarioren bosten baten eskariz.

2. Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabakiko du, aholkua eskatu zaion aferaren garrantzia edo eragina kontuan hartuta, irizpena Osoko Bilkurak edo Batzorde Iraunkorrek egingen duen.

IV. KAPITULUA Funtzionamendua

19. artikulua. Irizpena eskatzea.

1. Nafarroako Gobernuko Lehendakariari eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariari dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpena eskatzea.

2. Nafarroako Gobernuko kontseilariak ere, zuzenean eska diezaiokete Nafarroako Kontseiluari nahitaezko txostena egin dezala beraien eskumeneko aferari buruz; hain zuzen, 17. artikuluko e) letrak aipatzen dituen horiei buruz.

3. Nafarroako toki entitateetako buruei eta beste korporazio, erakunde edo entitate publikoen ordezkariak berenganatua duten organoei dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpena eskatzea, indarra duen legeriaren arabera nahitaezkoa den kasuetan. Eskaera hori Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren bitartez egingen da.

20. artikulua. Abstentzioa eta arbuiztea edo ezestea.

1. Kontseilukideek zuzeneko interes objektibo zein subjektiboa duten gaietan parte hartzeari uko egin beharko diote, administrazio prozedurari buruz indarra duen araudiarekin bat etorriz.

2. Kontseilukideak ezesteko eskaria egin dezakete interesdunek, administrazio prozedurari buruz indarra duen legediarekin bat etorriz

21. artikulua. Erabakiak hartzea.

1. Kontseiluaren irizpen eta erabakiak baliozkoak izateko, kontseiluburuak eta idazkariak, edo legez haien ordezkariak direnek, bilkuran egon behar dute, eta horiekin batera, gehiengo osoa

osatzeko behar diren hainbat kontseilukidek, gutxienez.

2. Erabakiak hartuko dira bertarutzen diren kideen gehiengoaren aldeko botoaz.

Osoko Bilkuran berdinketa izanez gero, kontseiluburuaren kalitatezko botoa erabakigarria izanen da. Berdinketa Batzorde Iraunkorrean gertatzen bada, Osoko Bilkurak erabakiko du afera.

3. Gehiengoak hartzen duen erabakiaren aurkako iritzia dutenek idatziz azaldu ahalko dute beren boto partikularra, arrazoi eta guzti. Boto partikularra irizpenari erantsiko zaio.

22. artikulua. Epea.

Nafarroako Kontseiluak berrogeita bost egun naturaleko epean eman beharko ditu, eskuarki, eskatzen zaizkion irizpenak.

Organo eskatzaileak espedientearen premia justifikatzen duen kasuetan, epea hamabost egun naturalera arte jaitsi ahalko da.

Salbuespeneko kasuetan eta kontseiluburuak eskatuta, ohiko epea luzatu ahalko da, hogeita hamar egun natural, gehienez.

Nafarroako Kontseiluak irizpenik ematen ez badu esandako epean, izapidea beteta dagoela ulertuko da, alegia, eragozpenik ez dagoela aholkua eskatu zaion gaiari buruz.

23. artikulua. Dokumentazioa.

Kontsulta eskaerarekin batera, aztertuko den aferaren inguruko dokumentazio osoa aurkeztu beharko da.

Kontseiluak uste badu espedientea osorik ez dagoela, kontseiluburuaren bitartez, eskatu ahalko du behar den dokumentazio osagarria ekar dezaten. Kasu horretan, irizpena emateko aurreko artikuluan ezarri epea eten egingen da, behin baino ez, betiere.

24. artikulua. Interesdunei entzutea.

Kontseiluaren aztergai jartzen diren aferetan interesa dutenei entzunaldia eman ahal zaie

Kontseiluburuak erabakiko du entzunaldia egi-tea, interesdunek eskatuta edo bere arioz. Edonola ere, entzunaldia emanen zaio Administrazio Publikoari, zuzeneko interesa duenean eta hala eskatzen duenean.

25. artikulua. Adituen partehartzea.

Kontseiluak aztergai jartzen zaizkion aferetan gaitasun tekniko nabarmena duten erakunde, entitate edo adituen partehartzea eskatu ahalko du, txostena egin dezaten. Kasu horietan, Kontseilua-

ren azken irizpenean adierazi beharko da zehazki zer eskatu zaien eta txosten hura irizpenarekin batera aurkeztuko da.

26. artikulua. Oroit-idazkia

Kontseiluak urtero oroit-idazkia prestatu eta Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari igorriko dio. Bertan, aurreko ekitaldiko jarduna azaldu eta jarduketa juridiko-administratiboa hobetzeko egoki juzgatzen dituen iradokizunak aurkeztuko ditu.

V. KAPITULUA

Araubide juridikoa, ekonomia- eta finantza-araubidea eta langileak

27. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari ezar dakioken araubide juridiko bera ezarriko zaio Nafarroako Kontseiluari, kontratazioan, erantzukizunean eta administrazio- edo barne-araubideari buruzko gainerakoetan.

2. Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurari dagokio Kontseiluaren antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduaren proposamena onestea. Aldiz, Nafarroako Gobernuari dagokio erregelamendu hori onestea, Foru Lege honetako printzipioekin bat etorritz.

28. artikulua. Ekonomia- eta finantza-araubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari ezar dakioken ekonomia- eta finantza-araubidearen menpe egonen da Nafarroako Kontseilua.

2. Nafarroako Kontseiluak bere aurrekontuaren aurreproiektua prestatuko du, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan sar dezaten, programa independente gisa.

29. artikulua. Langileak.

Nafarroako Kontseiluaren zerbitzuko langileak merezimendu eta gaitasunaren printzipioen arabera hautatuko dira. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei ezar dakiekeen legedia bera ezarriko zaie.

Xedapen gehigarriak

Lehena. 1. Foru Lege honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen barruan, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernuko Lehendakariari bidaliko dizkiote dagozkien Nafarroako Kontseiluko kideak izendatzeko proposamena.

2. Kontseilukideak postuaz jabetu eta hurrengo hilabetearen barruan eratuko da Kontseilua.

Bigarrena. Nafarroako Kontseilua langileez eta gauza-baliabideez hornitzen den bitartean, Nafarroako Gobernuak jarriko ditu Kontseiluak behar bezala funtzionatzeko baliabide egokiak.

Hirugarrena. Nafarroako Kontseiluaren funtzionamendurako behar diren kredituak prestatuko ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kontseiluak bere programa izan arte Nafarroako Aurrekontu Orokorretan.

Laugarrena. Nafarroako Kontseilua eratu eta hilabeteko epearen barruan, Osoko Bilkurak antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduaren proposamena onetsi eta Nafarroako Gobernuari bidaliko dio, onetsi dezan.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Foru Lege honek indarra hartu aurretik Estatuko Kontseilura nahitaezko irizpena jasotzeko igorriak diren espedienteen izapidatzea hasitako bideari segituz eginen da.

Bigarrena. Legeen arabera nahitaezko irizpena Estatuko Kontseilutik hartu beharra izanik, Foru Lege honek indarra hartzen duenerako hasiak diren espedienteak Nafarroako Kontseiluari igorriko zaizkio.

Azken Xedapenak

Lehena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta betetzeko behar diren arauak eman ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek 1999ko urriaren 1ean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, hurrengo Foru Lege proposamenari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen dut: Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona. 1998ko urriaren 27ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hori, 82. zenbakian.

Iruñean, 1999ko otsailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

**ARTIKULU BAKARRARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

1. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari aurkezturiko emendakina, hainbat zati kentzeko: 35 bis artikulua lehen puntuko a), b), c), d), e), f) letrak, eta baita 2. puntua ere.

Zioak: Kontratuei buruzko Foru Legearen testua ez gainditzea, nola egiaztatuko den, zer aspektutan egin beharko den bereziki..., erregelamenduz garatzeko utzi beharko lirarteke, edota baldintza orrietan ezartzen diren eskakizun berezietarako.

2. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari aurkezturiko emendakina, 35 bis artikulua lehen puntuari, hain zuzen, hone-la geratuko da idatzita:

“Administrazio publikoekin kontratuak sinatu ahal izateko, pertsona natural edo juridikoek, espainiar nahiz atzerritarrek, dokumentu bitartez frogatu beharko dute Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea betetzen dutela.”

Zioak: Kontratuei buruzko Foru Legearen testua ez gainditzea, nola egiaztatuko den, zer aspektutan egin beharko den bereziki..., erregelamenduz garatzeko utzi beharko lirarteke, edota baldintza orrietan ezartzen diren eskakizun berezietarako.

3. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehikuntza egiteko emendakina

Artikulu bakarrari aurkeztua, 3. puntu bat gehitzeko, hona:

“3. Lehen puntuan adierazi diren pertsonen hirugarrenekin hitzartzen badute kontratua lagatzea edo kontratuaren egite partziala, Foru Lege honetako 152 eta 153. artikuluen arabera, lagapen hartzaileek edo azpikontrartistek hauxe egiaztatuko beharko dute: artikuluko 1. eta 2. puntuetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela”.

Zioak: proposamenaren ezarpen-eremua zabaltzea lagapenera eta azpikontrataziora.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

4. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Zioen Azalpenaren azkenaurreko lerroaldea aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

“Eta gaur egun, beharrezkoa da, aldi berean, ... (gainerakoa berdin)”.

Zioak: aurkeztu diren emendakinekin bat etortzearen.

5. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Zioen Azalpenaren azken lerroaldea aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

Azken batean, lege proposamen honetan ezarzen da, Administrazio Publikoarekin kontratatu nahi duten pertsona natural edo juridikoek bete beharreko betekizun gisa, dokumentu bidez frogatu beharra Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean agertzen diren laneko segurtasun eta osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko galdakizun eta betebeharrak betetzen direla.

Zioak: aurkeztu diren emendakinekin bat etortzearen.

Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, hurrengo Foru Lege proposamenari aurkeztu zaizkion emendakinek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen dut: Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa. 1998ko azaroaren 2ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hori, 84. zenbakian.

Iruñean, 1999ko otsailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

**1. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

1. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko emendakina. Ondoko testua proposatzen da:

“Foru Lege honen xedea da neurri publikoak ezartzea lanaldia berrantolatu eta murrizteko eta hogeita hamabost orduko lanaldia progresiboki ezartzeko foru administrazioetan, Nafarroako toki entitateetan eta Foru Komunitateko produkzio-sektore ezberdinetako enpresetan.”

Zioak: Neurri horien bidez bi helburu erdietsi nahi dira: oraingo lanaldia “berrantolatzea” eta lanaldi berria “progresiboki” ezartzea.

2. EMENDAKINA

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua ordeztzeko emendakina. Hona proposatzen dena:

Ondokoa kendu: “...Nafarroako Komunitateko produkzio sektoreetako enpresa publiko eta pribatuetan...”

Ondokoa idatzi: “...Foru Komunitateko produkzio-sektore ezberdinetako enpresetan.”

Zioak: Ez du zentzurik enpresa publiko eta pribatuen arteko bereizketa egiteak. Beste aldetik, proposamenaren egileek Nafarroako sektore publiko osoa eta enpresa guztiak bildu nahi dituz-

te. Horretarako, ez du zentzurik enpresa motak bereiztea, guztiei buruz hitz egin nahi bada.

Nahi genuke proposamenak gure Komunitateko izen ofiziala biltzea; izan ere, testu osoan zehar, behin eta berriz izen ez-osoak aipatzen baita. Iruditzen zaigu egileen akatsa dela, behin eta berriz ahazten direlako edo gure Komunitateko izena eta erakunde-ezaugarriak ez dituztelako ezagutzen.

3. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari testua gehitzeko emendakina.

Testuaren bukaeran, “35 orduko lanaldia ezartzeko” hitzen ondotik, “, enplegu egonkorra sortzea berekin ekarriko duena.”

Zioak: Lege honen helburua da enplegu egonkorren sorrera bultzatzea; lanaldia murriztu eta berrantolatzea, helburu hura lortzeko bitartekoak baizik ez dira.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

4. EMENDAKINA

«CONVERGENCIA DE DEMOCRATAS DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko emendakina. Artikulua-
ren lehenbiziko lerroaren ordean ondoko testua jar-
tzea:

“Lege honen ondorioetarako...”

Zioak: Erabili ohi den legezko lexikoari eta foru lexikoari egokitzea.

5. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua zenbait hitz gehitzeko emendakina

1. puntuan, “Lanaldiaren berrantolaketa” hitzen ondoren “enplegu egonkorra sortzeko”.

Zioak: Lanaldia murrizteak sortu behar duen ondorioa sartzea.

6. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

2. artikulua 2. puntuko b) letra kentzeko emendakina

Zioak: Zuzen aplikatuko dela bermatuko duten baldintzak ezartzea.

7. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluari zenbait hitz gehitzeko emendakina. 2. puntuko b) letran “eta/edo oporren gehitzea” hitzen ondotik: “; horrek lanaldiaren murrizketa proportzionala ekarriko du berekin.”

Zioak: Jaiegun eta opor gehiago izateak berez ez du zertan ekarri lanaldiaren murrizketa; izan ere, horietatik gehiago izatea urteko lan egutegiaren bidez berdindu daiteke.

8. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua c) idazatian zenbait hitz gehitzeko emendakina, “denboraren gehitzea” hitzen ondotik: “; horrek lanaldiaren murrizketa proportzionala ekarriko du berekin.”

Zioak: Legez ezarritako baimenaldi gehiago izateak berez ez du zertan ekarri lanaldiaren murrizketa; izan ere, horietatik gehiago izatea urteko lan egutegiaren bidez berdindu daitezke.

9. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2.2 artikuluko d) idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: Nahasgarria izan daiteke; beraz, kentzea proposatzen dugu.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

10. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen 2000. urterako eta hurrengo urteetarako lan baldintzak sindikatuetakoa ordezkariekin negoziatzerakoan, Nafarroako Gobernuak lanaren antolamendurako behar diren neurriak aurkeztuko ditu Negoziazio Mahai Orokorrean, hartan azter daitezzen; neurri horiek 35 orduko lan astea edo urteko zenbatespenean horri dagokiona ezartzea bideratuko dute.

Neurri horiek aplikatzeak lanpostu berrien beharra ekarriko du; behar horiek betetzea ezinbestekoa bada zerbitzuaren maila mantentzeko. Horren berri eman beharko da kasuan kasuko enplegu eskaintza publikoan sartzeko.

Bai lanaldiaren murriztea zehazteko formulak, bai zerbitzua bermatzeko behar den enplegu egonkorraren sorrera zehazteko formulak, langileen legezko ordezkariekin negoziatu beharko dira.”

Zioak: Negoziazio kolektiborako bi aldeek daukaten eskubidea baliogabetu nahi du lege honek, baita haren edukia hustu ere; izan ere, emaitza eman nahi da negoziazioari ekin aurretik.

Negoziazioan kontrapartidak lortzeari uko egin behar zaiola ezartzen du; izan ere, Parlamentuak bi aldeetako bat, negoziatorako eskubidearen subjektua dena, behartu nahi baitu ezer negoziatu gabe eta, beraz, kontrapartidarik izan gabe, funtzionarioen eta langileen ordezkariak duten aldarrikapen tradizional baten aurrean amore ematera.

Argi eta garbi dago eta gauza jakina da negoziazio batean amore emateak balio izaten duela beste aldeak dauden beharrak asetuko dituen zerbitu eskain dezan.

Proposamenaren egileek exigitzen dute hasieratik sindikatuen aldarrikapen hori asetzea; horrela ez dute modurik ematen beste aldeak administrazioaren kudeaketa eta antolamendu alderdiak hobetzeko neurriak onar ditzan, horiek, azken finean, herritarrari zerbitzu hobea ematea ekarriko luketen arren.

Badirudi argi dagoela aldeek negoziatzen ahal dituzten alderdiek, lan harremanei dagozkienek

eta sindikatuen ekimenez sorturikoek, politikaren esparrua inbaditzen dutela, eta horiek aldeei inposatu behar zaizkiela beharrezko zuzenbide gisa.

11. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua 1. idaztiaren ordezkari ondo testua jartzeko emendakina:

“1. Nafarroako Foru Administrazioak, toki entitateek eta horien menpe dauden erakunde autonomoek, beren zerbitzuan ari diren langileen ordezkariekin, edozein dela ere haien arteko harremanen araubide juridikoa, enplegu hitzarmen bat negoziatuko dute 2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, lau urteko akordioaren indarrezko epean hogeita hamabost orduko lanaldia progresiboki ezartzeko eta plantilak handitzeko; betiere, horrelakorik beharrezkoa denean aldean artean erabakitako Plantila Organikoen Razionalizazio eta Zehaztapen Planeko aurreikuspenei aurre egiteko”.

Zioak: Administrazio Publikoen barreneko negoziazio kolektiboaren prozesua modu progresibo eta lotuan ezarri nahi da.

12. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. puntua aldatzeko emendakina.

“plantila handitu egingen da...” esaten duen tokian, honako hau esan beharko luke: “plantila handitu egingen da, gutxienez, kontzeptu guztientzat benetan murriztutako denborari dagokionaren %80.”

Zioak: Neurri hauen aplikazioa ahalbidetuko duten baldintzak ezartzea

13. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua 1. idaztarian, leerroaldearen bukaeran, “langile bat hartuz” hitzen ondoren:

“Bai lanaldiaren murriztea zehazteko formulak, bai zerbitzua bermatzeko behar den enplegu

egonkorren sorrera zehazteko formulak, langileen legezko ordezkariekin negoziatu beharko dira.”

Zioak: Argi dago eta arrazoizkoa da formula guztiak langileen ordezkariekin negoziatu behar direla.

14. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.1 artikuluari beste lerroalde bat eranstea, ondoko testuarekin:

“1999, 2000, 2001, 2002 eta 2003. urteetan lanaldia proportzionalki murriztuko da, harik-eta legegintzaldiaren bukaeran 32 orduko lan astea izan arte.”

15. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.2. artikuluko 2. idazatiaren ordezkari ondoko testua jartzeko emendakina:

“Aparteko orduak kendu egingen dira, 3. eta 4. artikuluek aipatzen dituzten eremuetan; ezinbestekoak, indarrezko arrazoiaz egin behar direnak, estrukturaltzat jo daitezkeenak, atsedendaldiekin konpentsatuko dira, aldeztatik sindikatuak hori negoziatu eta adostu ondoren.”

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

16. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Ez da bereizketarik egin behar enpresa publiko eta enpresa pribatuen artean. Lanaren ikuspuntutik, enpresa publikoetako langileak lan zuzenbidearen menpe daude, administrazio funtzionarioak ez bezala; beraz, haien harremanek, egitan gertatzen den bezala, langile orrentzat ezarritako arauak jarraitu behar diete.

Beste aldetik, badaude zenbait enpresa publiko, sektore pribatuan egiten ez zen berrabiatze prozesuari ekiteko sektore publikoak osorik edo zati batean erosi baina sektore pribatura itzultzeko bokazioa dutenak. Enpresa horiek ez dute zertan

behar den tamainaz gorakoak egotearen adibidea izan; ezin da haiek behartu lanaldia murriztu eta langileak hartzera, modu horretan gastuak era handituz. Helburua bada enpresa horiek bideragarriak eta lehiakorak izatea, neurri horiek aplikatzeak lehiakortasun egoera prekarioan utziko ditu, sektoreko gainerako batzuekiko. Askotan gertatu da enpresaren egoera kaskarra lagundu duten faktoreetako bat behar den tamainaz goitikoa izan dela eta beharrezkoa dela langileak murriztera edo produktibitatea handitzera etorkizunari bermearekin ekin ahal izateko.

17. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua ordezkari ondoko testua jartzeko emendakina:

“Nafarroako Komunitateko Administrazioaren zuzeneko edo ez-zuzeneko partehartzea duten enpresek, toki entitateek eta horren mende dauden erakunde autonomoek negoziazio kolektiboan behar diren neurriak bultzatuko dituzte asteko hogeita hamabost orduko lanaldia progresiboki lortu, lan harremanak malgutu eta lanpostuak sortuko dituen Enplegu Plana ezartzeko.”

Zioak: Aurreko emendakineko arrazoi berdinak.

18. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko emendakina

“plantila handitu egingen da...” esaten duen tokian, honako hau esan beharko luke: “plantila handitu egingen da, gutxienez, kontzeptu guztiengatik benetan murriztutako denborari dagokionaren %80.”

Zioak: Neurri hauen aplikazioa ahalbidetuko duten baldintzak ezartzea

19. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluan, lerroaldearen bukaeran “, “langile bat hartuz” hitzen ondoren:

“Bai lanaldiaren murriztea zehazteko formulak, bai zerbitzua bermatzeko behar den enplegu egonkorraren sorrera zehazteko formulak, langileen legezko ordezkariekin negoziatu beharko dira.”

Zioak: Argia eta arrazoizkoa da formula hauek baliogarriak izanen badira, langileen ordezkariekin negoziatu eta adostasuna bilatu behar izatea.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

20. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua ordezteko emendakina.

Hona proposatzen den testua:

“1. Nafarroako Gobernuak lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa sustatuko ditu Foru Komunitateko produkzio-sektore eta zerbitzu gutzietan, aurreko artikuluetan adierazitako terminoetan.

Horretarako, oraingo laguntzak ezartzen dira, besteren konturako langileei kontratu mugagabeak egitea bultzatzeko, bai lanaldi osorako, bai zati baterako, enpresetan lortzen diren akordioetatik ondorioztatzen direnak, plantila osorako edo haren zati baterako.

2. Urteko lanaldiaren murriztea %5ekoa izanen da, gutxienez; aldi batean edo bitan antolatu daiteke, betiere lanaldiaren murrizketa bi urteetako bakoitzean urteko orduen %2 baino gehiagokoa bada.

Urteko lanaldiaren murrizketa, lan egutegia malgutzeko neurriekin edo bestelakoekin konpensatu beharko da.

Hori dela eta, enpresek lanaldiaren murrizketa eta beraren berrantolamendua ezartzeko plan bat eginen dute; hartan, justifikatu beharko dute murrizketa horrek ez duela lehiakortasunaren galerarik ekarriko ez eta produktuen edo zerbitzuen prezioa igoko ere.

Plan hori enpresako zuzendaritzak eta langileen legezko ordezkariak sinatu beharko dute enpresa bakoitzean.

Langileen legezko ordezkariak ez bada, enpresarioak edozein akordio hartzea planteatu ahal izanen dio hitzarmen kolektiboaren batzorde parekideari, baldin eta akordioa aipatu batzorde parekide horretan dauden sindikatuak ordezkari-

kin sinatzen bada, halakorik bada; akordioa ordezkari gehien dituzten gizarte erakundeekin ere sinatu ahal izanen da.

3. Laugarren puntuan aurreikusitako laguntza guztiak jaso ahal izateko, lanaldiaren murrizte horrek ekarriko duen enplegu berri bakoitzak ehuneko 3ko plantilaren gehikuntza sortuko du. Gehikuntza ehuneko 3 baino gutxiagokoa bada, aipatu puntuko c) idazatikoa laguntzak baizik ezin izanen ditu lortu enpresak. Bi kasu horietan, dirulaguntzak jasotzeko, beren plantilak lan-kontratu mugagabeekin handitzen dituzten enpresek langile horiek gutxienez hurrengo 4 urteetan mantenduko dituzten konpromisoa hartuko dute.

4. Arestian aipatu baldintza betetzen dituzten enpresek eskubidea izanen dute ondoko zerga-onurak aplikatzeko:

a) Amortizatzeko askatasuna dagoen ibilgetu materialerako eta erosi berritako materialerako.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen 63. artikulua aipatzen duen kenkariak 100eko 25era igotzea.

c) Aipatu legearen 72. artikulua 1 eta 3 zenbakiek aipatzen duten kenkaria 100eko 50era igotzea. Enpleguaren handitzea ebaluatzeko erabiliko den erreferentziako plantila, lanaldiaren murrizketa eta berrantolamendua ezartzeko akordioa indarrean sartu aurreko urteari dagokiona izanen da.

Zerga onura horiek jaso nahi dituzten entitateek tributu-administrazioari Ezarpen Plana aurkeztu beharko dio; hartan, inbertsioei eta lana sortzeari buruzko programa jasoko da, bai eta lanaldia berrantolatu eta murrizteari buruzko proiektu teknikoa ere.

Aurreko idaztatietan aipatzen den enpleguaren gehikuntza lanaldi osokoa baizik lanaldi partzialekoa bada, dirulaguntzen zenbatekoa proportzioan gutxiagotu beharko da.

5. Neurri hauek bi urtez izanen dute indarra, lege hau indarrean sartzen denetik aurrera; edonola ere, epe hori zabaldu ahal izanen da.”

Zioak: Gure ustez, interesgarriagoa da zerga izaerako laguntzak ezartzea: haien kudeaketa errazagoa da, eta ez du administrazioak egin behar.

Halaber, lanaldiaren murriztea ez da orokorrean hartu behar, baizik eta kontsentsuaren bidez lorturiko jarduketara plan baten bitartez; plan horrek sortu den egoera berria onartzea suposatuko du. Ezarpen Planak ez du zertan arrisku erreala ekarri legearen planteamenduak bereganatzen dituzten

enpresentzat; aukera horrek ariketa borondatezko eta errealista bat ekarriko du, helburu zehatz eta zenbagarriekin eta helburu horiek erdiesteko neurri egokiekin.

Enpresaren munduan, batez ere enpleguak arriskuan jartzen direnean, sobran daude huts-hutsean borondatezkoak diren planteamenduak; kudeatzeko ahalmena, ordea, behar-beharrezkoa da.

Halaber, banaketarako aukerak malgutu behar dira murrizketaren denbora-mugan. Ulertu beharra dago ezarpena ezin izanen dela modu automatikoan gauzatu jarduketa mota guztietan; batzuetan modu gradualean gauzatu beharko da.

21. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko a) idazatiko lehen lerroaldea aldatzeko proposamena. Haren ordez, ondoko testua proposatzen da:

“Komunitateko produkzio eta zerbitzu sektore guztietan, Nafarroako Gobernuak sustatuko du negoziazio kolektiboaren bidez barneko Enplegu Hitzarmen bat ezartzea. Delako hitzarmenak lan harremanak malgutzea, lanpostuak sortzea, lanaldia progresiboki asteko hogeita hamabost ordutara murriztea eta lanaldia berrantolatzea ahalbidetuko dituena. Ondoko bideak erabiliko dira:

a) Horretarako, “Fondo Berezia” izenekoa sortzea; hori Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen bidez zehaztuko da ekitaldi bakoitzean.

Zioak: Enpresen eremuan, prozesua enpresen eta langileen ordezkarien arteko negoziazio askeari lotu behar zaio, helburua aldeentzako modu egokienean eta modu progresiboan hitzartu dadin.

22. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 1. lerroaldean “aipatu den moduan sortuko du enplegu” hitzen ondotik “egonkorra” hitza eranstea.

Zioak: Aurreko artikuluetako argudioekin koherentea izateko.

23. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 2. lerroaldean “lanaldiaren berrantolatamenduari buruz” hitzen ondotik ondokoa jarritzea:

“, betiere enplegu egonkorra sortzeko konpromisoarekin.

Enpresaren eta langileen ordezkarien arteko alde aurreko akordio hori ezinbesteko baldintza izanen da pizgarriak lortzeko; akordio horren bidez, lanaldiaren murrizteaz gainera, plantila kontratu egonkorrekin handitzeko konpromisoa ere araupetuko da.”

Zioak: Lege honen helburua da langileentzako enplegu egonkorra sortzea.

24. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko c) letrako lehen lerroaldearen ordez ondokoa esanen duena jarritzea:

“Langileen ordezkariekin egindako akordioaren bidez lanaldia orokorrean murriztu –gutxienez %10– eta plantila, gutxienez, %6 igotzen duten enpresei, enpresak gorabehera arruntengatiko Gizarte Segurantzari ordaintzen dion kuotaren gainean ondoko dirulaguntza emanen zaie sorturako lanpostu bakoitzeko, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura:

– 29 urtetik beherako emakumeei, gazteei eta iraupen luzeko langabetuei eginiko kontratuak: %60.

– Iraupen luzeko langabetuak izan eta 45 urte baino gehiago dituzten pertsoneri, eta emakumeak azpiordezkatuak dauden sektoreetan egindako kontratu mugagabeak: %75

– Pertsona minusbaliatuei egindako kontratu mugagabeak: %100.

– Gainerako kontratu mugagabeak: %40.

Laguntza hauek bi urte iraunen dute; ez dira bateraezinak izanen Foru Komunitateak edo Estatuak emaniko beste laguntzekin.”

Zioak: Akordioa bultzatzea lanaldia murriztearen ondorioz enplegua sortzen duten enpresetan, eta ahalegin handiagoa egitea enplegua aurkitze-

ko zailtasun handiagoak dituzten zenbait kolektibotako pertsoneri kontratu mugagabeak egiteko.

25. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

5. artikuluko c) letra aldatzeko emendakina.

“aipatu den lanaldiaren murrizketaren bidez sortutako lanpostu bakoitzagatik.” esaten duen tokian, ondokoa esan behar du:

“aipatu den lanaldiaren murrizketaren bidez kontratu mugagabearekin sortutako lanpostu bakoitzagatik.

Aipatu diren dirulaguntzak hiru hilabetero emanen dira, eta horiek emateko nahitaezkoa izanen da sortutako lanpostuari eustea.”

Zioak: Neurri hauen aplikazioa ahalbidetuko duten baldintzak ezartzea.

26. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluari 4. lerroaldean zenbait hitz gehitzeko emendakina.

“500.000 pezetakoak ere izan daitezkeenak aurretik aipatu den lanaldiaren murrizketaren bidez sortutako lanpostu” hitzen ondoren “finko” hitza gehitzea.

Zioak: Ez dugu uste justua denik pizgarriak ematea aldi baterako lanpostuengatik.

27. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko c) letrako bigarren lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Ez dugu uste positiboa denik aldi baterako kontratuak diruz laguntzea.

28. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko azken aurreko lerroaldea, lerroalde osoa, kentzeko emendakina:

“Emanen den zenbateko hori %20 gutxiago... lanaldiaren murrizketari dagokion heinean gutxiagotuko da.”

Zioak: Lanaldiaren murrizketa behin betikoa eta atzeraezina baldin bada, ez dago justifikaturik aldi baterako kontratazioa erabiltzea iraupen mugagabeko lanpostuetarako; are gutxiago, hori bultzatzea.

29. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluari ondoko testua gehitzeko emendakina:

“Lege honek lortu nahi duen helburua lortzeko ematen diren zerga laguntzak eta zuzeneko laguntza bateragarriak izanen dira enpresak jaso ditzaketan gainerako guztiekin.”

Zioak: Gainerako laguntzek ez duten beste helburu baterako neurriak direlako.

XEDAPEN IRAGANKORRARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

30. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankorra kentzeko emendakina

Zioak: Xedapen iragankorrak ez du zentzurik, 5. artikulua aldatzen bada.

31. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankorra aldatzeko emendakina.

Hurrengo testua proposatzen da, dagoenaren orde:

“5. artikuluko c) idazatian jasotako neurriak 2000. urtean izanen du indarra, hasiera batean; izan ere, urte horretarako Aurrekontuan sartuko da beharrezko eta nahikotzat jotako kontsignazioa.”

Zioak: neurria eraginkorra izan dadin.

32. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Xedapen iragankorra aldatzeko emendakina

“1999. urtean soilik” esaten duen tokian “1999 eta 2000. urteetan” jarri behar du.

Zioak: Neurri hauen aplikazioa ahalbidetuko duten baldintzak ezartzea.

AZKEN XEDAPENEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

33. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako bigarrena ordeztzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Hala ere, ondorio ekonomikoak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu, eta Nafarroako Gobernuak, horretarako, egoki diren kredituak eratuko ditu, legez xedaturikoari jarraituz.” hitzen ordeztzeko, ondokoak jartzea: “Hala ere, ondorio ekonomikoak 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu, eta Nafarroako Gobernuak, horretarako, egoki diren kredituak eratuko ditu, legez xedaturikoari jarraituz.”

Zioak: Inolaz ere ezin da bilatu lege hau 1999an aplikatzea; izan ere, aurrekontuetan dituen eraginak zenbait milaka milioi egiten dituela zenbatetsi da. Legea aplikatzeko behar diren kredituak ez dira sartu berriki onetsi den 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean.

34. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako bigarrena aldatzeko emendakina.

“1999” urtearen ordeztzeko “2000” urtea jarri eta “horretarako” hitzaren ondotik heldu den testua kentzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko emendakinetan adierazitako datarekin bat etortzeko; xedapen iragankorrerako proposatzen den testuan ere bildu da.

35. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan bigarrena gehitzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Nafarroako Gobernuak hiru hilean behin emanen dio Nafarroako Parlamentuari lege honen garapenaren eta betetzearen berri; halaber, ukituriko administrazioek eta enpresek legea dela-eta egiten dituzten negoziazio eta akordio guztien berri ere emanen dio.”

Zioak: Parlamentuak lortu nahi diren helburuen jarraipena egin ahal izan dezan.

TITULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

36. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izena aldatzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

Foru Lege proposamena, lanaldia 35 orduko izan dadin laguntzeko eta lan denbora murriztu eta berrantolatzekeo neurri publikoak ezartzeari buruzkoa.

Zioak: Lege proposamenaren egileek berek 1. artikuluan adierazten dute legearen xedea dela “neurri publikoak ezartzea lanaldia antolatu eta murrizteko”; beraz, horrekin bateragarriagoa da legearen izenak xedea, hau da, helburua, biltzea, eta ez legean barne hartzen diren bestelako gauza edo alderdiak.

2. artikulua arabera, lege proposamena ulertu eta aplikatzeko oinarriko elementuak murrizketa eta berrantolaketa dira; elementu horien inguruan daude testu honetan aurreikusten diren eta sustatzen diren jarduketak guztiak. Ez da logikoa alderdi horiek izenetik kanpo gelditzea.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

37. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena ordezteko emendakina. Hona proposatzen den testua:

Enplegu betea estatu askotako gizartearen lehenbiziko helburu sozial eta politikoa izan da. Dauden langabezi-tasen jaitsiera eta ahal den eta herritar gehienak lan merkatuan sartzea zilegizko xedea da, botere publikoen ekimenaren gakoia izan behar dena sektorekako politiken gainetik.

Beste aldetik, araupeko lan batean parte diren pertsonen kopurua handitzeak berekin dakar gizartearen ongizate-maila sendotzea, zerga-politikaren eta gizarte prestazioen bidez antolatzen diren elkartasun mekanismoak indartuz, sartuta dauden sistema politikoen bideragarritasun ekonomikoa indartzen duten bidenabar.

Enplegu egonkorra edukitzeko nahi zilegizkoa –enplegu egonkorrak gizabanakoek beren burua garatzeko balio duen aldetik– akuilua da bai botere publikoentzat bai gizarte eragileentzat; horiek herritarren, enpresen eta komunitateen garapen sozioekonomikorako hartu behar diren neurriak bideratu behar dituzte.

Azken garai hauetan sortu diren ekimenen artean, lanaldia murriztearen planteamendua dago, bai okupazioaren igoera –beraz, langabeziaren jaitsiera–, bai lana dutenen artean gero eta gehiago antzematen den asmoa, hain zuzen ere beren garapen pertsonala osatzearena aisialdi gehiago edukiz.

Komunitate politiko ezberdinetan hasitako planteamendu hau, hala ere, ezin da alde bakarretik inposatu, ez eta garatu ere gizarte eragileetako batek –alegia, enplegua sortzen duen gizarte eragile nagusia, enpresa-erakundeek eta enpresek– parte hartu, negoziatu eta onartu gabe.

Hori dela eta, Foru Lege honen xedea da neurri egokiak eta eraginkorrek ezartzea lanaldiaren murrizketaren eta berrantolamenduaren bidetik –beren interesak lortzeko baliozko tresna gisa–

beren borondatez jo nahi dutenak bultzatzeko. Hori guztia negoziazio kolektiboarekiko errespeturik handienaren esparruan, hala administrazioaren eremuan nola enpresa pribatuan, eta negoziazio kolektiborako eskubide konstituzionala legezko inposizio baten bitartez alde aurretik hustu gabe.

Kontua da, beraz, lanaldia berrantolatu eta murriztearen eta 35 ortuko lanaldia ezartzearen bidean aurrera egin nahi dutenak babestu, zaindu eta laguntzea, betiere legeak ezarritako tresnak erabiliz.

Zioak: Lan harremanen buruan egon behar duen ez-aginduzko izaera eta enplegu betea –bal-dintza egonkorretan eta gizabanakoen garapena ahalbidetzeko moduan– izateko helburu amankomuna erdiesteko ardura indartu nahi dugu.

Halaber, negoziazio kolektiborako eskubide konstituzionala badagoela eta errespetatu behar dela adieraztea; hasierako lege proposamenak hori bortxatu eta hustu nahi duela ematen du.

38. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIO ANDREAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 4. eta 5. lerroaldeak aldatzeko emendakina

Hazkuntza ekonomikoa enplegua sortzeko giltzarria da, baina ez da helburu hori erdiesteko aski. Jakin behar dugu hazkuntza ekonomikoak enplegua sortzen duela egia izanik ere, jarduerata hasten den neurrian sortzen diren lanpostuak ez direla aski langabezi tasa altuak gutxitzeko.

Argi dago enplegua sortzeko hazkuntza ekonomikoa bultzatzeko aplikatzen den ilusio bera jarri behar dugula. Bide horretan, enplegu politika eraginkorra garatu ahal izateko, beste gauza batzuen artean beharrezkoa izanen da lan denbora banatzea eta lanaldia murriztea. Gertatzen ari den produktibitatearen hazkuntzak tarte nahikoa uzten du lanaldia murrizteko lehiakortasuna galdu gabe, eta modu horretan lanpostuak sortzeko. Horrek berekin dakar produktibitatearen hazkuntza beste modu batera banatzea.

Zioak: Lege proposamenaren artikuluetan planteatzen diren proposamenei hobeki egokitzea.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--